




KULTURA

PAYS BASQUE

www.kultura-paysbasque.fr

LAGUNTZA DOZIERRA



IKUSGARRIRA JIN AITZIN

Zenbait bide proposatzen dizkizuegu irudimenen pizteko eta nork bere burua ikuslearen esperientzian proiektatzeko.

Nork bere buruari egiteko galderak:

Zer ote da ikusgarri bat? Zer ote da antzoki bat? Zer ikusiko dugu?
Nola behar da jokatu? Zergatik noa ikusgarri baten ikustera?
Zer gaiez ariko da? Gustatuko ote zait?

ZER OTE DA IKUSGARRIGINTZA?

Hurrek ikusgarrigintzaz dituzten irudikapen mentalak zertan diren argitu. “Ikusgarrigintza” ideiatik abiatuz, galda hurrei mundu horri lotzen dituzten hitz guzien zerrendatzea. Entsea hitz horiek elkarrekin gaika “sailkatzea” (adibidez: arlo artistikoak / lanbideak / antzerki espazioa / sentipenak). Ondotik, elkarrekin definizioak atzeman eta esplikatatu.

— *Larousse hiztegiaren definizioa:* “Ikusgarrigintza” izendapenak seinalatzen du publiko baten aitzinean zuzenean iragaten den ikusgarria, ikus-entzunezko sorkuntza artistikoei kontrajarririk, bereziki zinema, telebista edo Internet. Antzerkiari dagokio gehienbat (antzerki-geletan edo hiri-gunean), operari, dantzari, musikari, zirkuari eta kabaretari.

— **Zertarako ote balio du ikusgarrigintzak?**

Abiatu gogoeta, eztabaida eta idazketa lan bat gai horren inguruan.

— **Zer da titulu hori?**

Titulua aipatzeak haurren irudimena garatuko du. Gogoeta memento horren ondotik, ikusgarriaren afixa hipotetikoa ere marraz daiteke.

— **Afixa baten deskodetzea:**

Ikusgarriaren afixatik abiatuz (edo ikusgarria aurkezteko hautatu den iruditik), haurrak/gazteak ikusgarriaren munduaz betetzen lagun ditzaketen ideia-elkartzeak piztu, hitzak, irudipenak, koloreak, sentimenduak bildu.

ZER DA IKUSLE IZATEA?

Bultzatu publiko anitzen irudiak aztertzeraz eta espazioaren antolaketari, ikusle kopuruari, artistekiko hurbiltasunari, ikusleen jarrerari, garaiari, ikusgarri motari behatzera. Publikoa ez da bera futbol partida baten, rock kontzertu edo antzerki emanaldi baten aitzinean. Antzerkiko publikoari dagokion irizpideetatik abiatuz, entsea elkarrekin ikuslearen definizioa finkatzera.

— **Larousse hiztegiaren definizioa:**

“IKUSLEA (ikusten duena)

- Ekintza baten, gertakari baten begizko lekukoa.

- Ospakizun publiko batean, kirol ekitaldi batean, ikusgarri batean gertatzen den norbait.

- Ekintzari beha egiten dion pertsona, parte hartu gabe.”

— **Maiz egiten diren galderak:**

Zer ote da ikusle “on” bat? Ikuslea zerbaiti behatzen diona da, baina zeri? Ikuslea ikusgarriaren parte ote da? Eta gelako ikusle bakarra bazina? Ikusle baldin banaiz, hala erabaki baitut izanen da, hautatu dut emozio horien bizitzea, beraz, ez ote naiz aktibo bilakatu, eta, beraz, aktore? Zer da antzerki bat ikuslerik gabe? Presentzia fisiko bat baizik ez banaiz gelan, ikuslea ote naiz? Ikas ote daiteke ikusle bilakatzen? Ikuslea beharrezkoa ote da? Negarrek, irriek, txalok eragina ote dute aktoreengan? Ikuslea aktore egiten ote dute orduan? Bazterrean dagoen aktorea ikusle ote da?

IKUSLEAREN ESKUBIDEAK ETA EGINBEHARRAK

— **Ikusbideak ikusgarri denboran eta ondotik:**

Gelan ongi jarria izateko eskubidea dut.

Ihardukitzeko, irri egiteko, negar egiteko eta txalotzeko eskubidea dut, baina artistak errespetatuz.

Ikusgarria ez maitatzeko eskubidea dut, baina ez diet ez artistei ez beste ikusleei traba egin behar.

Ikusgarriari buruz ene iritziaren ukaiteko eskubidea dut, baita ere jakitea zerk nauen ene baitan galdezka ariarazi.

Hitz egiteko gogorik ez ukaiteko eskubidea dut, ene irudipenak enetzat atxikitze eskubidea. Ene iritzia eman aitzin, pentsatzeko denbora ukaitea eskubidea dut.

— **Eginbeharrak. Ikusgarrietako erritualak ikasi behar dira:**

Gelara sartzea: lasaiki joan behar da jartzera, ingurukoak errespetatuz.

Ikusgarria aitzineko iluna: isilik egoten da eta prestatu behar da ikusgarriaren ikustera.

Agurra eta txaloak.

Gelan: ez ditut besteak trabatu behar. Besteak, artistak eta ikusgarria errespetatzen ditut.

Behar bezala jarririk egoten naiz.

Ikusgarria ongi ulertzeko, taulagainean gertatzen den ekintzari erne egoten natzaio, baita ere gelan gertatzen denari ekintza hara mugitzen balitz.

USTIAPEN PEDAGOGIKO IDEIA ZENBAIT

— Ikusgarria luzatzeko, “**ikuslearen liburuxka**” telekarga eta inprima dezakezu Kultura bidean proiektuaren webgunean.

— Ahozko adierazpen saioa:

Ikusgarriaren deskribapena eta emozioen adierazpena.

Hitza askatzeko eta iritzi kritikoa presaz ez emateko, beharrezkoa da ikusgarri bat elkarrekin deskodetzea, formari buruzko galderetarik abiatuz: kontakizuna, aipatu gaiak, narrazioa, espazioa (dekoratua); musika, soinua, testuaren et irudiaren arteko harremanak, jokolarien jokia (publikoari mintzo ote ziren, jokolariek pertsonaia bat baino gehiago antzezten ote zuten), osagarriak, jantziak?

Ondotik, nork bere emozioak aipatu: Zer zait gustatu? Zer ez zait gustatu? Zergatik?

— Marrazkiaren bidez adieraztea:

Ikusgarriaz oroitu eta nork bere memento gogokoena marraztu. Manera figuratiboan edo abstraktuan (sentipena, kolorea, argia, usaina).

— Afitxa berriz egin:

Lehen/Gero (afitxa bat egin baldin bada ateraldia aitzin). Ikusgarriaz egin afitxaren deskodetzea eta egitea.

— Galdera ontzia:

Taldean haur/gazte bakoitzak idatziko du galdera bat ikusgarriari buruz, eta ontzi batean sartuko. Ontzia eskuz esku ibiliko da eta eskutan duenak galderetarik bat irakurriko du goraki, eta norbait izendatuko du galderari ihardesteko. Horrek ikusgarriaren irudipenaren inguruko trukaketa eta eztabaida erraztuko du.

— Irudipen jokia:

Gogoetara bultzatu ikusgarriari buruzko irudipen jokoaren bidez.

- Ikusgarria kolore bat balitz,litzateke.
- Ikusgarria usain bat balitz,litzateke.
- Ikusgarria musika bat balitz,litzateke.
- Ikusgarria sentipen bat balitz,litzateke.
- Ikusgarria ekai bat balitz,litzateke.
- Ikusgarria objektu bat balitz,litzateke.
- Ikusgarria garai bat balitz,litzateke.
- Ikusgarria gustu bat balitz,litzateke.
- Ikusgarria adjektibo bat balitz,litzateke.

— Bost zentzuak:

Marraztua den aurpegi baten inguruan. Ahoaren, begien, beharrien, sudurraren, burmuinaren lekuan, bunbuiloak bete “organo” bakoitzak errateko zer sentitu duen ikusgarri denboran.

— Arte-kazetari baten lekuan:

Ikusgarri baten kritika idatzi; elkarrizketa bat aktore bilakatzen diren ikasleekin (idatziz edota ahoz); telebistako eztabaida bat egin. Forma bat baino gehiago egon daitezke, eta ikasgelako liburuan, eskolaren webgunean etab., argitara daitezke. (...).